


ezagutzen al duzu Donostia?

Londres

Gaur hain izen ezaguna bihurtu den Altzako *Garbera* alderdian dago Londres baserria, *Garbera-bea* eta *Paris* etxetatik ipar-mendebaldera muino zabal batean kokatua. *Londres*-tik mendebaldera jarraituz eta gaur egun desagertua dagoen *Bustintxulo*ko erre-karen beste aldetik hiru baserri eder zeuden: *Argel-aundi*, *Argel-txiki* eta *Argel-etxeberri*. Aipatutako erre-karen buruan, hego-mendebaldera berriz, *Arruax* edo *Rodas* baserria zegoen. Egia auzoan sartuta, *Tuiz*, *Tuiz-berri* eta *Xibili* edo *Sibilia* (Sevilla?) handia eta txikia zeuden.

Inguru guzti hau 1968. urte aldera suntsitua izan zen. 24 baserri desagertu ziren eta haien artean aipaturiko gehienak. Gaur *Londres* zaharra ere desagertzeko zorian aurkitzen da hipermerkatu erraldoi bat



Londres baserria Altxa herrian.

eraikitzeaz baitago bere lurretan. Ziur aski *Londres* toponimoa galduko dugu betirako lehen aipatuak eta *Sebastopol*, *Toledo*, *Algar-be*, *Lobaina*, *Miranda*,

Ebro, *Alejandria*, *Oporto*, *Esparta* edo *Madrid*ko galdu genituen bezala. Eskerrak oraindik hor direla zutik: *Habana*, *Txipres* eta *Ametzagaitaren* hegian

dagoen *Plazentzi* edo *Placencia* zaharra gure baserri-izendegi aberatsaren azken lekukoak bezala.

ARGAZKIA ETA TESTUA: JOSU TELLABIDE

BAQUE KAFEAK ESKEINITAKO

ARGIBIDE KAFEZALEAK



"Munduko kafe onenak" aipatzen ditugunean, gehienetan Ameriketako erdialdean eta hegoaldean hazten diren kafe suabe garbituak ditugu gogoan.

JAMAICA, COSTA RICA, NIKARAGUA, HONDURAS, HAITI eta Arabika Kafe garbituetan nagusi den KOLONBIako kafe mitikoak, mundu osoan zehar zabaltzen diren usain goxo eta suabetasun bereziko kafeak.

BAQUE KAFEA suabe... suabea



Poz handia ematen digu kafeaz dakigun guztia zure esku jartzeak.